



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urriaren 27a

124. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—11-25/CCOI-00018. “Antsoingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoen langileria, kontratazio publikoa eta enkarguak, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**11-25/CCOI-00018. “Antsoingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoen langileria, kontratazio publikoa eta enkarguak, 2024” fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2025eko irailaren 1ean eginiko bilkuran, Eledunen Batzarriari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak “Antsoingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoen langileria, kontratazio publikoa eta enkarguak, 2024” fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c)

artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2025eko irailaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**AURKIBIDEA***ORRIALDEA*

I. SARRERA .....	4
II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA.....	4
III. IRITZIA.....	5
IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA .....	5
V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK .....	6
VI. SOZIETATE PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNA.....	6
VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA.....	7
VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK .....	7
1. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA.....	8
2. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK .....	9
2.1 Antsoaingo Udalaren sozietate publikoa .....	9
2.2 Burlatako Udaleko sozietate publikoak .....	11
2.3 Eguesibarko Udalaren sozietate publikoa .....	15
2.4 Atarrabiako Udalaren sozietate publikoa.....	19
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK.....	22
BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMANDAKO ERANTZUNA .....	24

## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2024ko bere jarduketa-programari jarraituz, fiskalizazioa egin du Antsoaingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoen langileriaren, kontratazio publikoaren eta enkarguen arloko 2024ko zenbait legezkoatasun-alderdiri buruz.

Landa-lana 2025eko otsailean eta martxoan egin zuen bi auditoretza-teknikarik eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberako zerbitzu juridiko, informatiko eta administrati-boen laguntzarekin.

Lan honen emaitzak jakinarazi zitzaizkien Antsoaingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udaletako alkateei eta Idakiorlak SL, Bizkarmendia SL, Sociedad Urbanística Municipal de Burlada SL, Andacelay SL eta Kirol Martiket 2015 SL sozietate publikoetako gerenteei, alegazioak aurkez zitzaten Nafarroako Kontuen Ganberari buruzko abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 11. artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Epea amaituta, Andacelay SLko zuzendari gerenteak baino ez ditu aurkeztu alegazioak. Alegazioak, behin aztertuta, txostenean jaso dira Kontuen Ganbera honen erantzunarekin batera, eta, horrenbestez, txostena behin betikotzat jotzen da.

Lan hau egiteko eman diguten laguntza eskertzen diegu sozietate publikoetako eta udaletako langileei.

Txosten honetako datu ekonomiko guztiak eurotan eman dira, biribilduta, zentimorik ez agertzeko. Balio zehatz bakoitza biribilduta adierazten dute beti hemen emandako datuek eta ehunekoek, eta ez biribildutako datuen batura.

## II. FISKALIZAZIOAREN HELBURUAK ETA NORAINOKOA

Gure lanaren helburua da iritzia ematea udalen sozietate publikoek 2024an egindako langileria, kontratazio publiko eta enkarguei buruzko jarduerak alderdi esanguratsu guztietan arlo horietan aplikatzekoa den arau-esparruaren arabekoak izateari buruz.

Fiskalizazioaren norainoko objektiboak honako hauek hartzen ditu barnean, adierazitako esparru bakoitzeko eta txosten honen 2. gehigarrian aipatzen diren laginetan aztertutako eragiketei dagokienez:

- Langileria: alderdi orokorrak, ordainsarien analisia eta langile-hautaketako eta aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesuen azterketa.
- Administrazio-kontratazioa: munta txikiko kontratueterako araubide bereziaren erabilera eta kontratu-euskarri egokirik gabeko prestazioak.
- Enkarguak: enkarguaren gastuen justifikazioa eta udal kontu-hartzaitzaren kontrola.

Antsoaingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoek osatzen dute norainoko subjektiboa.

Hauek dira fiskalizatutako sozietateak:

Udala	Sozietate publikoa	Objektu soziala	Sorrera-urtea
Antsoain	Idakirolak SL	Kirol-instalazioen eta eremu eszenikoen kudeaketa	2017
Burlata	Bizkarmendia SL	0-3 eskolaren kudeaketa eta haur eta gazteei zuzendutako aisialdi-jarduerak	2017
	Sociedad Urbanística muni. de Burlada SL	Higiezin-jabetzaren kudeaketa eta admin.	2006
Eguesibar	Andacelay, SL	Eraikin-garbiketa, haur-eskolen kudeaketa, familiak artatzeko zentroaren kudeaketa.	2004
Atarrabia	Kirol Martiket 2015 SL	Kirol instalazioen kudeaketa	2015

Orobat, udal kontu-hartzaitzak fiskalizatutako sozietate publikoen enkarguei dagokienez egingako jarduketa aztertu dugu.

Fiskalizazioaren denbora-norainokoa 2024ko ekitaldiari dagokio, baina beste ekitaldi batzuei buruzko egiaztapenak ere egin dira, beharrezkoak zirenak ezarritako helburuak hobeki lortzeko.

### III. IRITZIA

Nafarroako Kontuen Ganberak, abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeak esleitzen dizkion esku-menak erabiliz, legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin du Antsoaingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoen langileriaren, kontratazio publikoaren eta enkarguen arloko 2024ko alderdiei buruz.

Gure iritziz, eta gure lanaren norainokoa aintzat hartuta, gure txostenaren "Salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaldutako zertzeladen eraginengatik izan ezik, langileriaren, kontratazioaren eta enkarguen arloan Antsoaingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoek 2024ko ekitaldian egindako eta guk aztertutako jarduerak bat datoz, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoa zaion araudiarekin.

### IV. SALBUESPENDUN IRITZIAREN OINARRIA

Honako salbuespen hauek aipatzen ditugu:

#### Kontratazio administratiboa

- Idakirolak SL sozietateak eta Kirol Martiket 2015 SL sozietateak ez dituzte lizitazio-prozedurak izapidetzen kontratazio administratiborako. Hona hemen zuzenean izapidetutako prestazioen zenbatekoak eta sozietatearen gastuekiko egiten duten ehunekoa:

Udala	Sozietate publikoa	Gastua, guztira (2024)	Sozietatearen gastuekiko %a*
Antsoain	Idakirolak SL	81.976	85
Atarrabia	Kirol Martiket 2015 SL	279.105	59

\*Hornidura-gastuak eta beste ustiapen-gastu batzuk

- Andacelay SL sozietateak munta txikiko kontratuen araubide bereziaren bidez izapidetu ditu zenbait zerbitzu- eta hornidura-kontratu, txosten honen 2 gehigarrian zehazten direnak. Horiek baina, beren balio zenbatetsiari zegokion prozeduraren bidez lizitatuak izan beharko ziratekeen. Hona hemen prestazio horien 2024ko zenbatekoa eta sozietatearen gastuekiko egiten duten ehunekoa:

Udala	Sozietate publikoa	Gastua, guztira (2024)	Sozietatearen gastuekiko %a*
Eguesibar	Andacelay SL	55.5549	20

\*Hornidura-gastuak eta beste ustiapen-gastu batzuk.

### Enkarguak

- Udal kontu-hartzaitzak ez du aztertu Atarrabiako Udalak Kirol Martiket SL sozietateari egin dako enkarguaren gastu-justifikazioa.

Egin dugun fiskalizazioa kanpo-kontrolako erakunde publikoen funtsezko fiskalizazio-printzipioei jarraitzen zaie; eta, zehazkiago, ISSAI-ES 400 aruari, zeina legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioei buruzkoa baita. Halaber, jarraitzen zaie kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-gida praktikoei. Arau horien indarrez ditugun erantzukizunak aurrerago deskribatzen dira, txosteneko "Kontuen Ganberaren erantzukizunak" atalean, hain zuzen ere.

Entitate fiskalizatuarekiko independenteak gara, hala behartzen dute-eta legedi-betetzeari buruzko gure fiskalizazioari aplikatzekoak zaizkion eskakizun etikoek eta independentzia babeste-koek, bai eta fiskalizazio publikoko jarduerari buruzko araudiak ere.

Gure ustez, lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako eta behar bezalako oinarria ematen du gure legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioko salbuespendun iritzirako.

### V. AUDITORETZAKO GAI GILTZARRIAK

Auditoretzako gai giltzarri dira gure iritzi profesionalaren arabera munta handiena izan dutenak aztertutako aldiari dagokionez legedi-betetzeaz egin dugun fiskalizazioan. Auzi horiek multzoan jorratu ditugu legedi-betetzeari buruz egin dugun auditoretzaren testuinguruan eta gure iritziaren taxuketan, eta ez dugu horiei buruzko iritzirik bereiz azaltzen.

Txosten honetako "Salbuespendun iritziaren oinarria" atalean azaldutako zertzeladez gain, ez dugu gure fiskalizazioan funtsezkotzat jotako inolako gorabeheraren berri ematen.

### VI. SOZIETATE PUBLIKOEN ERANTZUKIZUNA

Sozietate publikoaren administrazio-kontseiluak bermatu behar du fiskalizatutako arloetan sozietateak gauzatzen dituen jarduerak bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin.

Bestalde, Udalaren erantzukizuna da beharrezko jotzen dituen barne-kontrolako sistemak ezartzea, bermatze aldera sozietate publikoaren jardueran ez dagoela lege-arloko ez-betetzetik.

## VII. NAFARROAKO KONTUEN GANBERAREN ERANTZUKIZUNA

Gure helburuak dira arrazoizko ziurtasuna lortzea fiskalizatutako arloetako jardueretan ez-betetze esanguratsurik ez egoteaz eta legedi-betetzeari buruzko fiskalizazio-txosten bat jaulkitzea, gure iritzia jasotzen duena.

Arrazoizko ziurtasuna ziurtasun-maila handia da, baina horrek ez du bermatzen fiskalizazio publikoaren jarduerari buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio batek beti harrapatuko duenik ez-betetze esanguratsu bat, halakorik egonez gero. Ez-betetzeak iruzur edo akatsen ondorio izaten ahal dira, eta materialtzat jotzen dira Kontuen Ganbera honen irizpideak aplikatuta.

Kanpo-kontrolako organoen fiskalizazio-jarduerari buruzko araudiari jarraituz egindako fiskalizazio baten atal gisa, gure irizpide profesionala aplikatzen dugu, eta eszeptizismo profesionaleko jarrerari eusten diogu auditoretza osoan zehar. Gainera:

- Iruzur edo akatsen ondoriozko ez-betetze esanguratsuak izateko arriskuak identifikatu eta balioesten ditugu, auditoretza-prozedurak taxutzen eta aplikatzen ditugu arrisku horiei erantzuteko, eta gure iritzia oinarria emateko behar besteko eta behar bezalako auditoretza-ebidentzia lortzen dugu. Ez-betetze esanguratsu bat iruzurraren ondoriozkoa denean, hori ez detektatzearen arriskua handiagoa da errorearen ondoriozkoa denean baino; izan ere, iruzurraren osagai izaten ahal dira kolusioa, faltsutzea, berriazko omisioak, apropos egindako adierazpen okerrak edo barne-kontrolari itzuri nahia.

- Fiskalizaziorako muntazkoa den ezagutza lortzen dugu barne-kontrolatik, inguruabarren araberako egokiak diren auditoretza-prozedurak taxutze aldera, eta ez, ordea, entitatearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzirik emate aldera.

- Ebaluatzen dugu ea prozedurak egokiak diren, eta ea kudeaketa-organismoak emandako informazioa arrazoizkoa den.

Entitateko gobernu-organismoarekin harremanetan aritzen gara gai hauen inguruan, besteak beste: planifikatutako auditoretza-proben norainokoa eta haiek egiteko unea, fiskalizazioan aurkitutako gorabehera adierazgarriak, bai eta fiskalizazioan zehar identifikatzen ahal dugun barne-kontrolako edozein gabezia esanguratsu ere. Entitatearen gobernu-organismoari jakinarazi zaizkion gorabeheren artetik, zehazten dugu zein izan diren munta handienekoak legedi-betetzeari buruzko fiskalizazioan eta, horrenbestez, auditoretzako gai giltzarri.

## VIII. GOMENDIO GARRANTZITSUENAK

Antsoingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen udal-sozietateen langileria, kontratazio publiko eta enkargu arloetako betetze-fiskalizazioko lanaren emaitza gisa, Ganbera honek honako hau gomendatzen du:

- *Kontratu-lizitazio prozedura egokia izapidetzea halako prestazioetarako non balio zenbatesiak gainditu egiten baititu munta txikiko kontratuetarako ezarritako mugak.*

- *Atarrabiako Udaleko Kirol Martiket 2015 , SL sozietatearen enkarguaren gastuak fiskalizatzea.*

Beste gomendio batzuk 2. gehigarrian jaso ditugu, fiskalizazioaren beste ohar eta aurkikuntza batzuei buruzkoan.

Txosten hau jaulkitzen da, indarreko araudiak ezartzen dituen izapideak bete ondoren, lan honen arduradun Asunción Olaechea Estanga auditoreak proposatuta.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

## 1. GEHIGARRIA. ARAU-ESPARRUA

Honakoak dira, besteak beste, udal-sozietate publikoei aplikatzekoak zaizkien arauak:

### **Estatuko arauak**

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2/2015 Legegintzako Errege-dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoko behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa.
- 31/2022 Legea, abenduaren 23koa, 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa. Aurrekontu horiek 2024ra luzatuak izan dira.

### **Foru araudia**

- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako Toki Ogasunei buruzkoa.
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu Publikoei buruzkoa.

## 2. GEHIGARRIA. BETETZEAREN FISKALIZAZIOKO BESTE OHAR ETA AURKIKUNTZA BATZUK

Egindako fiskalizazioaren atal gisa, ondoren ohar eta iruzkin batzuk gehitu ditugu, bai eta fiskalizazio-txosten honen hartzaile eta erabiltzaileentzat Ganbera honen ustez interesgarri gerta daitekeen informazio gehigarri zenbait ere.

Txosten honen VIII. atalean jasotakoez gain, orobat gehitu ditugu Ganbera honen ustez sozietate publikoen kudeaketa ekonomiko-administratiboa hobetzeko beharrezkoak diren beste gomen-dio batzuk.

### 2.1 ANTSOAINGO UDALAREN SOZIETATE PUBLIKOA

Idakirolak SL sozietate publikoak honako datu hauek agertzen ditu 2024ko ekitaldian:

Sozietate koa	publi-	Negozio-zifra gar- bia	Hornidurak eta beste ustiapen- gastu batzuk	Langileria- gastuak	Ekitaldiko emaitza	Langileak, 2024-12-31n
Idakirolak SL		651.654*	96.592	553.256	1.863	43

\*Negozio-zifraren % 100 udalaren enkarguari dagokio.

Udalaren enkarguz, sozietateak kirol-jarduera kudeatzen du, jarduera federatuak eta haurrei zuzendutakoak izan ezik, ezen horiek zuzenean antolatzen ditu udalak, udal kirol-teknikariaren bidez.

#### 2.1.1. Langileria

Sozietatearen langile-gastuak 553.256 eurokoak izan ziren 2024an: 2023an baino ehuneko hamar gehiagokoak. Gehikuntza horren arrazoia da ordainsariak ehuneko 2,5 gora egin izana eta kirol-jarduera berrietarako langileak kontratatu izana.

Langile-gastuak	Gastua (2024)	Gastua (2023)	2024/2023 aldea (%)
Lansariak eta soldatak	433.024	395.047	10
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzaren	120.232	109.697	10
Guztira	553.256	504.744	10

#### Langile-gastuaren egiaztapenak

Sozietateko langileriaren ordainsari-araubidea Idakirolak SL enpresaren 2018-2021 hitzarmen kolektiboan arautzen da, zeina 2019ko azaroaren 20ko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (NAO, aurrerantzean) argitaratuta baitago, eta zeina mugagabeki luza baitaiteke, hitzarmen berri bat sinatu arte.

Egiaztatu dugunez, langileei 2024an pagatutako ordain-kontzeptu guztiak hitzarmen kolektiboan araututa daude.

Sozietateko zazpi langilek 2024an jasotako ordainsarien lagin bat aztertu dugu, guztira 13.475 euro egiten duena, eta hilabete horretako ordainsari guztien ehuneko 38 egiten duena. Bada, hitzarmenean edo kontratuan ezarritakoaren arabekoak dira. Ordaindutako orduak langileen presentzia-fitxaketan daude oinarrituta.

Sorosleei ordaindutako orduko prezioa hitzarmenean ezarritakoa da, ez ordea sozietateko monitoreei ordaindutakoa, azken horiekin orduko prezio handiagoa negoziatzen baita, ezen, azaldu dugunez, zailtasuna dago hitzarmenean ezarritako prezioan kontratatzeko.

## Langileen hautaketa

Beharrian planifikatueterako langileria-kontratazioa honako irizpide hauei jarraituz egiten da, lehenetasun-hurrenkeraren arabera: betekizunak betetzen dituzten langileen arteko barne-deialdiz; Internetezko deialdiz eta aurkeztutako curriculumen arabera hautaketaz; kasua bada, elkargo ofizialean eskaintzak argitaratuz; eta estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoari curriculumak eskatuz.

Planifikatu gabeko beharrianetarako langile-kontratazioa, orokorrean, sozietateak zuzenean egiten du.

## Aldi baterako langileen egonkortzea

Ez zen enplegu-egonkortze prozesurik egin. 2024ko urrian, aldibaterakotasun-tasa estimatua ehuneko bostekoa zen.

### 2.1.2. Kontratazio administratiboa

Munta txikiko kontratu bezala izapidetutako zerbitzu eta hornidurak aztertu ditugu, eta mugae-guneratutako kontratuetan oinarritutako prestaziorik ba ote zegoen ere begiratu dugu.

### Munta txikiko kontratazioa

Hurrengo koadroan erakusten dira sozietatearen hornidura- eta zerbitzu-gastuak zenbateko-tarteka, bai eta aztertutako lagina ere:

Gastuak	Hornitzaile-ko-purua	Gastua, guztira	Aztertutako gastua	Hornitzaile-ko-purua
15.000 euro gehi BEZa baino handiagoa	2	58.569	58.569	2
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	2	23.407	23.407	2
3.750 euro gehi BEZa baino txikiagoa	27	14.616	0	0
<b>Guztira</b>	<b>31</b>	<b>96.592</b>	<b>81.976</b>	<b>4</b>

Ikusi dugu munta txikiko kontratuen araubide bereziari jarraituz izapidetu direla, lau urteko epean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritako muga –hots, 15.000 euro, BEZa kanpo– baino gehiagoko balio zenbatetsia zeukaten lau zerbitzu- eta hornidura-kontratuak. Kontratu hauek dira:

Xedea	Gastua, guztira 2024	Gastua, guztira 2021-2024
Antsoaingo antzokiko laguntza teknikoa	37.366	125.965
Klase- eta koordinazio-zerbitzuak	21.203	79.325
Kontabilitate-, zerga- eta lan-aholkularitza	14.549	49.076
Irudi korporatiboa: argitalpenak, webgunearen mantentze-lana	8.858	40.557
<b>Guztira</b>	<b>81.976</b>	<b>294.923</b>

Idakirolak, SL sozietateak ez ditu hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen munta txikiko kontratuen esleipenerako araubide bereziaren arabera egin diren esleipenak.

### Kontratu mugaeguneratuak

Sozietateak ez dauka kontratu mugaeguneraturik, ezen, IV. epigrafean adierazten dugun bezala, ez du izapidetu, ez 2024ko ekitaldian ez eta aurreko ekitaldietan ere, kontratuak lizitatzeko inolako espedienterik. Ez dago Nafarroako Kontratazioaren Atarian alta emanda.

### 2.1.3 Udalaren enkargua

Antsoingo Udalak Idakirolak SL sozietate publikoari enkargatu dio kirol-instalazioen eta antzokiaren kudeaketa eta kale-jarduketetako laguntza teknikoa. Udalaren osoko bilkurak 2017ko abuztuaren 30ean onetsi zuen enkargua, eta urte hartako irailaren 14ko NAOan argitaratu zen. Enkargua automatikoki eta urteka luza daiteke, alderdietakoren batek ez badu espresuki denuntziatu.

Antsoingo Udalak ez du Idakirolak SL sozietate publikoa ente instrumentaltzat deklaratu, nahiz eta deklarazio horretarako izapideak hasita dauzkan.

Udalak ez du Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu enkargua egiteko agindurik.

2024an enkargurako onetsitako aurrekontua 622.716 eurokoa izan zen. Hilero, sozietateak zenbateko aurreikusia fakturatzen dio udalari, egiazki sortutako gastuekin doitu: 2024an, guztira 651.654 euro. Ekitaldi horretan, sozietateak 1.863 euroko emaitza izan zuen.

Sozietatearen gastuen lagin bat aztertu dugu, eta gastuak justifikatuta daude, eta zerikusia daukate enkarguaren xedearekin.

Gure lanaren konklusioak aintzat hartuta, hauxe gomendatzen dugu:

- *Aldi baterako langileak kontratatzeke zerrendak prestatzea.*
- *Nafarroako Kontratazioaren Atarian hiru hilean behin argitaratzea munta txikiko kontratuen esleipenerako araubide bereziaren bitartezko esleipenak.*
- *Entitate instrumental deklaratzeko Idakirolak SL sozietatea, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea deklarazio hori eta enkargua egiteko agindua.*

## 2.2 BURLATAKO UDALEKO SOZINETATE PUBLIKOAK

Burlatako Udaleko sozietate publikoek honako datu hauek agertzen dituzte 2024ko ekitaldian:

Sozietate publikoa	Negozio-zifra garbia	Hornidurak eta beste ustiapen-gastu batzuk.	Langileria-gastuak	Ekitaldiko emaitza	2024ko batez besteko langile-kopurua
Bizkarmendia, S.L	890290 <sup>1</sup>	21.485	877.848	101	28,59
Burlatako Udalaren Hirigintza Sozietatea SL	0	32.882	66.989	-258861 <sup>2</sup>	1

1. Negozio-zifraren % 100 udalaren enkarguari dagokio.

2. Emaitza negatiboa, nagusiki ibilgetuaren amortizazioaren ondoriozkoa.

### 2.2.1 Bizkarmendia SL sozietatea

Bizkarmendia sozietateak kudeatzen du haur-eskoletako langileria.

### 2.2.1.1 Langileria

Sozietatearen langile-gastuak 877.848 eurokoak izan ziren 2024an: 2023an baino ehuneko 11 gehiagokoak. Gorakada horren zergatia da ordainsariek ehuneko 2,5 gora egin izana, eta handiagoa izatea bai premia bereziak dituzten ikasleentzako hezitzaile-kopurua, bai 2024ko langile-bajen kopurua ere, 2023koen aldean.

Langile-gastuak	Gastua (2024)	Gastua (2023)	2024/2023 aldea (%)
Lansariak eta soldatak	672.983	636.552	6
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzza	201.301	147.790	36
Bestelako gizarte-gastuak	3.565	3.463	3
<b>Guztira</b>	<b>877.848</b>	<b>787805</b>	<b>11</b>

### Langile-gastuaren egiaztapenak

Sozietateko langileen ordainsari-araubidea haur-hezkuntza eta -laguntzako zentrozen estatu-mailako hitzarmen kolektiboan ezarri zen, 2019ko uztailaren 26ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua, eta 2021eko abenduaren 31ra bitarteko indarraldiduna, urtero luzagarria, salaketarik ez izanez gero. Horrez gain, 2010ean langilieriaren lan-baldintzen hobekuntzak onetsi ziren, eta 2023ko otsailean sozietatearen administrazio-kontseiluak langilieriari soldatak igotzea onetsi zuen.

Egiaztatu dugu langileei 2024an ordaindutako ordain-kontzeptu guztiak hitzarmen kolektiboan eta langileen lan-baldintzen hobekuntzari buruz onetsitako akordioetan daudela oinarrituta.

2024ko urrian 26 enplegaturi pagatutako ordainsariak, 42.396 euro egiten zutenak, aztertu ditugu, eta hitzarmenean eta sozietatearen administrazio-kontseiluak 2023ko otsailean onetsitako ordain-osagarrietan ezarritakoaren araberakoak dira.

### Langileen hautaketa

Langileak kontratatzeke irizpideak honako hauek dira, lehentasun-hurrenkeran: barne-igoera, zerrendak eta Enplegu Institutu Nazionalari egindako eskaera.

Sozietateko langileen ehuneko 80 hezitzaileak dira. 2017an deialdi publiko bidez eratutako zerrenden bitartez kontratatutak dira. 2024ko abenduan udaleko iragarki-oholean zerrenda berriak argitaratu ziren, ekitaldi horretan hezitzaileen kontrataziorako deituak eta eratuak.

### Aldi baterako langileen egonkortzea

Sozietateak ez zuen aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesurik egin, haren langileria mugabea baita. 2024ko urrian, aldibaterakotasun-tasa estimatua ehuneko laukoa zen.

### 2.2.1.2 Administrazio-kontratazioa

Hurrengo koadroan erakusten dira sozietatearen hornidura- eta zerbitzu-gastuak zenbateko-tarteka, bai eta aztertutako lagina ere:

Gastuak	Hornitzaile-kopurua	Gastua, guztira	Aztertutako gastua	Hornitzaile-kopurua
15.000 euro gehi BEZa baino handiagoa	0	0		
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	2	21.353*	21.353	2
3.750 euro gehi BEZa baino txikiagoa	1	132	0	0
<b>Guztira</b>	<b>3</b>	<b>21.485</b>	<b>21.353</b>	<b>2</b>

\*14.215 euro dira Burlatako Udalari ordaindutako jantoki-gastuarenak

Udala da haur-eskolei dagozkien zerbitzu eta horniduretarako kontratuak egin eta kontabilizatzen dituenak. Sozietateak kontabilizatutako lan-aholkularitza zerbitzurako kontratua udalak esleitu zuen, 2022an. Lan-aholkularitzako gastua 7.139 eurokoa izan zen 2024an.

Bizkarmendia SL sozietateak ez ditu hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen munta txikiko kontratuen esleipenerako araubide bereziaren bitarteko esleipenak.

### Kontratu mugaeguneratuak

Sozietateak ez dauka kontratu mugaeguneraturik; hots, kontratu-araudiak ezarritako gehieneko iraunaldia, luzapen guztiak barne, gainditu duenik.

### 2.2.1.3 Udalaren enkargua

Burlatako Udalak entitate instrumental bereki deklaratu zuen Bizkarmendia SL 2018an, eta erabakia Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu zuen.

Urte horretan bertan, udalak sozietate publikoari enkargatu zion gehienez ere 12 unitate kudeatu eta garatu zitzala Haur Hezkuntzako lehen zikloarentzat, zerotik hiru urtera bitarteko haurrak artatzekoarentzat. Enkarguari lau urteko epea eman zaio, 2018ko urtarrilaren 1etik 2022ko urtarrilaren 1era arte. Udalak ez du enkargu berririk egin.

Udalak ordaindu beharreko hileroko kopuru bakoitza berraztertu behar du, eta sozietateak aurkezten duen kostu erreal justifikatura doitu.

2024an, sozietateak udalari 890.290 euro fakturatu zizkion. Faktura-lagin batean egiaztatu dugu ezen sozietateak hileroko udalari aurkezten dizkion gastuak justifikatuta daudela.

Onetsitako enkarguak ezarritakoaren kontra, sozietate publikoak ez du egiten eta, beraz, ez dio udalari aurkezten, ekitaldiari buruzko urteko oroitidazki bat, barne hartuko dituen zerbitzuaren funtzionamendua, gorabeherak, ikastetxeka xehakaturako zerbitzu-kostua, ikasturteko balantze ekonomikoa, zerbitzuari egotzitako gastuak eta diru-sarrerak jasotzen dituenak, eta hobetze-proposamenak.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, honako hau gomendatzen dugu:

- *Hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea munta txikiko kontratuen adjudikaziorako araubide bereziari jarraituz egin diren adjudikazioak.*
- *Bizkarmendia SL sozietatearentzako enkargua onestea.*
- *Ekitaldiaren urteko oroitidazkia egitea enkarguan ezarritakoa txertaturik, eta oroitidazkia Udalari aurkeztea.*

## 2.2.2 Burlatako Hirigintzako Udal Sozietatea

Burlatako Hirigintzako Udal Sozietatea (aurrerantzean, "hirigintza-sozietatea") 2006an eratu zen, xedetzat harturik hirigintza-azterlanak egitea, hirigintza-jarduera, hirigintzaren ondoriozko obrak eta zerbitzuak kudeatzea eta salmentarako nahiz alokairurako etxebizitzak, merkataritza-lokalak eta aparkalekuak sustatu eta kudeatzea.

Udalak sozietateari enkargatu zion ekipamendu bat eraikitzea, biltegi, aldagela, gazteriaren etxe eta 0-3 urterako haur-hezkuntzako ikastetxerakoa. 2012an, azalera-eskubidea emateko kontratu bat sinatu zuen udalak, hirigintza-sozietatearen aldekoa, ekipamendu horiek eraiki ziren lau lurzatiatarako, bai eta horiek udalari alokatzeko bat ere; bi kontratuak, 30 urteko eperakoak, dokumentu berean formalizatu ziren.

Gure ustez, ez da efizientea sozietate bat haren sozietate-xedeari dagokion jarduerarik gabe eta langileriarik gabe mantentzea, salbu eta udalaren instalazioetan bertan kudeatzailatza-eginkizunak betetzen dituen pertsona bat.

Hala ere, 2024ko otsailean, Batzar Nagusiak erabaki zuen sozietatea desegitea, eta, txosten honen garaian, likidazio-prozesuan dago.

### 2.2.2.1 Langileria

Hirigintza-sozietateak langile bakarra dauka, zeinak kudeatzaile-postuan baitihardu. 2024ko ekitaldiko langileria-gastuak 66.989 eurokoak izan ziren, 2023an baino ehuneko hiru gehiagokoak. Hona hemen haien xehakapena:

Langileria-gastuak	Gastua (2024)	Gastua (2023)	2024/2023 aldea (%)
Lansariak eta soldatak	50.698	49.343	3
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzza	16.291	15.719	4
<b>Guztira</b>	<b>66.989</b>	<b>65.062</b>	<b>3</b>

### Langile-gastuaren egiaztapenak

Egiaztatu dugu ezen kudeatzaileari 2024an pagatutako ordain-kontzeptu guztiak udaleko lan-kontratudun langilariaren hitzarmen kolektiboan daudela araututa, kudeatzailea langileria horri parekatuta egonik.

2024ko urrian pagatutako ordainsariak aztertu ditugu, eta bat datoz administrazio-kontseiluak bere ordainsariei buruz erabakitakoarekin.

### 2.2.2.2 Administrazio-kontratazioa

Honako koadro honetan erakusten dira sozietatearen hornidura-gastuak eta beste ustiapen-gastu batzuk, zenbateko-tarteka, bai eta aztertutako lagina ere:

Gastuak	Hornitzaile-kopurua	Gastua, guztira	Aztertutako gastua	Hornitzaile-kopurua
15.000 euro gehi BEZa baino handiagoa	1	17.385*	17.385	1
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	1	12.000**	12.000	1
3.750 euro gehi BEZa baino txikiagoa	10	3.497	1.500	1
<b>Guztira</b>	<b>12</b>	<b>32.882</b>	<b>30.885</b>	<b>3</b>

\*Udalari ordaindutako kontribuzioa.

\*\*Udalari azalera-eskubidearen lagapenagatik ordaindutako kanona.

Hirigintza-sozietateak ez dauka 15.000 euro, BEZa kanpo, baino gehiagoko zerbitzu- eta hornidura-kontraturik.

Sozietatearen 2024ko inbertsio-gastuak, zenbateko-tarteka xehakatuak, hauek dira:

Gastuak	Hartzekodunen kopurua	Gastua, gutztira	Aztertutako gastua	Hartzekodunen kopurua
40.000 euro gehi BEZa baino handiagoa	1	574.287	574.287	1
40.000 euro gehi BEZa baino txikiagoa	8	72.188	68.851	4
<b>Guztira</b>	<b>9</b>	<b>646.475</b>	<b>643.138</b>	<b>5</b>

2024an, sozietateak prozedura ireki bidez adjudikatu zuen udal-erakin bat birgaitzeko obra, 500.048 euroko prezioan. Gainera, obra-zuzendaritza prozedura sinplifikatuaren bidez esleitu zuen, zeinak 22.888 euroko gastua ekarri baitzuen 2024an. 2024an egindako gainerako inbertsioak, 49.300 eurokoak guztira, egokiro izapidetu ziren munta txikiko kontratu gisa, ez baitzuten gainditzen 40.000 euroren muga (BEZa kanpo).

Hirigintza-sozietateak ez ditu hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu 2024ko ekitaldian munta txikiko kontratuen adjudikazioetarako araubide bereziaren bitartez egindako adjudikazioak.

### Kontratu mugaeguneratuak

Sozietateak ez dauka kontratu mugaeguneraturik; hots, kontratu-araudiak ezarritako gehieneko iraunaldia, luzapen guztiak barne, gainditu duenik.

### 2.2.2.3 Udalaren enkargua

2014ko abenduan, Burlatako Udalaren Osoko Bilkurak udal-etxebizitzaren kudeaketa eta administraziorako entitate instrumental aitortu zuen hirigintza-sozietatea, eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu zuen 2025ean, gure fiskalizazioa zela-eta.

Sozietatearen diru-sarrerak datoz udalari 0-3 urtekoen zentroa, gaztediaren etxea, biltegi bat eta aldagelak errentan ematetik.

Udalak sozietateari udal-erakin baten birgaitzea enkargatu zion 2021ean. Sozietateak obra 2023an lizitatu eta 2024an adjudikatu zuen. Txosten honen datan, amaituta dago obra, eta sozietateak udalari ez dio obrarekin lotutako ezein gastu fakturatu.

Honako hau gomendatzen dugu:

- *Hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea munta txikiko kontratuen adjudikaziorako araubide bereziari jarraituz egin diren adjudikazioak.*
- *Likidazio-prozesua bukatzea eta hirigintza-sozietatea desegitea.*

### 2.3 EGUESIBARKO UDALAREN SOZINETATE PUBLIKOA

Sozietateak honako datu hauek agertzen ditu 2024ko ekitaldian:

Sozietate publikoa	Negozio-zifra garbia	Hornidurak eta beste ustiapen-gastu batzuk	Langileria-gastuak	Ekitaldiko emaitza	2024ko batez besteko langile-kopurua
Andacelay SL	2.812.153*	277.612	2.530.425	3.779	74,2

\*Ehuneko 99,85 udalaren enkarguari dagokio.

Andacelay SL sozietate publikoak, udalaren enkarguz, udal-erakinen garbiketa, haur-eskolak eta Familiei Arreta egiteko Zentroa kudeatzen ditu.

### 2.3.1. Langileria

Sozietatearen langile-gastuak 2.530.425 eurokoak izan ziren 2024an: alegia, 2023an baino ehuneko 11 gehiagokoak. Gehikuntza horren arrazoia da ordainsariak ehuneko 2,5 gora egin izana, haur-eskoletako batean ikasgela berri bat ireki izana eta laneko bajen eta ordaindutako baimenen ugaritzea.

Honako hauei dagozkie:

Langileria-gastuak	Gastua (2024)	Gastua (2023)	2024/2023 aldea (%)
Lansariak eta soldatak	1.862.948	1.691.812	10
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzza	657.299	568.433	16
Beste gastu batzuk	10.177	20.229	-50
<b>Guztira</b>	<b>2.530.425</b>	<b>2.280.474</b>	<b>11</b>

### Langile-gastuaren egiaztapenak

Sozietateko langileriaren ordainsari-araubidea lau hitzarmenetan araututa dago: haur-hezkuntza eta -laguntzako zentroen estatu-mailako hitzarmen kolektiboan, Nafarroako eraikin- eta lokalgarbiketaren sektoreko hitzarmen kolektiboan, Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialaren sektoreko hitzarmen kolektiboan eta Nafarroako bulego eta langelen hitzarmenean.

2020ko uztailaren 2an, Andacelay SLko Batzar Nagusiak hobekuntza-itun bat onetsi zuen sozietateko langile guztientzat 2019-2020 aldirako, eta 2020ko azaroaren 12an berretsi zuen ituna Udaleko Osoko Bilkurak. Itun hori ez zuten argitaratu. Ikusi dugu irizpide desberdinak aplikatzen direla sozietateko langile-kolektibo bakoitzari aplikatzekoak zaizkion soldata-taulak zehazteko, baina, oro har, 2024an ordaindutako ordainsariak betetzen dituzte 2023rako Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean (EAOL), 2024rako luzatutakoan, ezarritako mugak.

Gatazka kolektiboko salaketa bat dago jasota, Familiei Arreta egiteko Zentroko langileek jarritakoa Nafarroako ekintza eta esku-hartze sozialaren sektoreko hitzarmen kolektiboko soldata-taulen interpretazioa eta aplikazioa direla-eta, bai eta langileen sailkapen profesionala EAOLen ezarritako aurrekontu-mugaren arabera izateari dagokionez ere. Lan-arloko epaitegiaren epaiaren zain dago salaketa. Jasota daude, halaber, sozietateko 11 pertsonaren banakako erreklamazioak, gai beraren ingurukoak. Udal-sozietatearen aholkularitza juridikoko zerbitzuaren estimazioen arabera, 192.883 euroko gastua sortu zaio sozietateari 2022-2024 tartean.

Egiaztatu dugunez, sozietateko langileei 2024an ordaindutako ordain-kontzeptu guztiak araututa daude aplikatzeko den hitzarmen kolektiboan.

2024ko urriko nominak aztertu ditugu, 122 langileri dagozkienak eta 165.524 euroko zenbatekoa egiten dutenak, eta behar bezala ordaindu dira.

Alabaina, nominak ordaintzeko baimendutako sinaduren artean, sozietateko gerentearena dago, eta hura eszedentzian dago.

### Langile-hautaketa

Aldi baterako langileen hautaketa kontratazio-zerrenden bidez egiten da, zeinak Udalaren webgunean eta iragarki-taulan argitaratuta baitaude.

Familiei Arreta egiteko Zentrorako psikologo baten kontratazio mugagaberako prozedura aztertu dugu, eta bete dira merezimendu- eta gaitasun-printzipioak. Deialdia Udalaren webgunean eta iragarki-oholean argitaratu zen.

### Aldi baterako langileen egonkortzea

Sozietate publikoak aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesu bat izapidetu zuen haur-eskoletako sei lanpostutarako, abenduaren 28ko 20/2021 Legean, enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoan, jasotako betekizun eta epeen arabera.

Honako alderdi hauek azpimarratzen ditugu:

- Sozietate publikoaren Administrazio Kontseiluak aldi baterako enplegua egonkortzeko sei lanpostuko enplegu-eskaintza publiko bat (aurrerantzean, EEP) onetsi zuen 2022ko maiatzaren 6an, 2022ko maiatzaren 19ko NAO n argitaratu zena, EEPa onesteko eta argitaratzeko epe aurreikusien barrenean, beraz, 2022ko ekainaren 1era artekoa baitzen epea. 2022ko irailaren 30ean, Administrazio Kontseiluak errore bat zuzendu zuen, onetsitako EEPan hezitzaile-plaza bat gehiago sartua baitzen.

- Bost lanpostu lehiaketa-oposizio bidez betetzeko deialdia 2022ko abenduaren 12ko NAO n argitaratu zen, aplikatzekoa zen araudiarekin bat, beraz, epemuga gisa 2022ko abenduaren 31 baitzegoen finkatuta han.

- 2024an amaitu zen bost lanpostuetarako hautapen-prozesua.

Familiei Arreta egiteko Zentroko langileek eta garbiketakoek lan-kontratu mugagabea dute, eta, hori horrela, ez zen izapidetu enplegu-egonkortzeko prozesurik.

Ezin dugu aldibaterakotasun-tasari buruzko estimaziorik egin, lanpostuak ez daudelako pertsona jakinei esleituta.

### 2.3.2. Kontratazio administratiboa

Munta txikiko kontratu gisa izapidetutako zerbitzu eta hornidurak aztertu ditugu, eta mugaeguneratutako kontratuetan oinarritutako prestaziorik ba ote zegoen ere begiratu dugu.

#### Munta txikiko kontratazioa

Honako koadro honetan erakusten dira sozietatearen hornidura- eta zerbitzu-gastuak zenbateko-tarteka, bai eta aztertutako lagina ere:

Gastuak	Hornitzaile-kopurua	Gastua, guztira	Aztertutako gastua	Hornitzaile-kopurua
15.000 euro gehi BEZa baino handiagoa	3	189.696	189.696	3
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	5	50.994	50.994	5
3.750 euro gehi BEZa baino txikiagoa	68	35.623	4.359	1
<b>Guztira</b>	<b>76</b>	<b>276.313</b>	<b>245.049</b>	<b>9</b>

Ikusi dugu munta txikiko kontratuen araubide bereziari jarraituz izapidetu direla, lau urteko epean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritako muga –hots, 15.000 euro, BEZa kanpo– baino gehiagoko balio zenbatetsia zeukaten lau zerbitzu- eta hornidura-kontratu. Kontratu hauek dira:

Xedea	Hornitzaile-kopurua	Gastua, guztira (2024)	Gastua, guztira 2023-2024*
Garbigaiak	3	46.393	96.282
Kanpoko kristalen garbiketa	1	9.156	19.071
<b>Guztira</b>	<b>4</b>	<b>55.549</b>	<b>115.353</b>

\*Ezin izan ditugu lortu 2021eko eta 2022ko gastuak.

Andacelay SL sozietateak ez ditu hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen munta txikiko kontratuen esleipenerako araubide bereziaren bitartez egindako esleipenak.

Sozietateak lizitazio-prozedura bat izapidetu du BEZa kenduta 15.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten hiru zerbitzu-kontratuak kontratatzeko, baina horietako baten esleipena soilik argitaratu du Nafarroako Kontratazioaren Atarian.

### Kontratu mugaeguneratuak

Ez da ageri Andacelay SL sozietateak mugaeguneratutako kontraturik duenik; hots, kontraturaudia ezarritako gehieneko iraunaldia, luzapen guztiak barne, gainditu duenik.

#### 2.3.3 Udalaren enkarguak

2016ko martxoaren 1az geroztik udalaren entitate instrumentala den Andacelay SL sozietateak honako enkargu hauek kudeatu zituen 2024an:

Enkargua	Udalari fakturatutako zenbatekoa
Udal-eraikinen garbiketa	483.671
Familiei Arreta egiteko Zentroa	548.106
Haur-eskolak	1.785.390
<b>Guztira</b>	<b>2.817.167</b>

Kontratu horiek Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratuta daude.

Sozietateak enkargu bakoitzerako hileroko justifikatzen duen kostu erreala ordaintzen dio Udalak sozietateari.

Egiaztatu dugu sozietateak enkargu bakoitzaren gastuen justifikazioa aurkezten duela hileroko, eta enkargu bakoitzeko gastu guztien zerranda eta faktura guztiak bidaltzen dizkiola Udalari. Sozietateak otsailean, azaroan eta abenduan hiru enkarguetako bakoitzeko Udalari fakturatutako gastuen lagin bat aztertu dugu, eta ikusi dugu gastuak justifikatuta daudela.

Udal-eraikinen garbiketarako enkarguari dagokionez, sozietateak ez dio aurkeztu Udalari zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko urteko oroitidazkia, eta, beraz, ez du bete onetsitako enkarguan ezarritakoa.

Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, hona gure gomendioak:

- *Ordainsariak ordaintzeko baimena kentzea sozietate publikoan lan aktiboan ez dauden langileei.*
- *Aurreikusitako gastuagatiko 192.883 euroko hornidura bat zuzkitzea, sozietateko langileek jarritako salaketaren estimazioaren arabera.*
- *Sozietatearen hobekuntza-ituna argitaratzea, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeari, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoari jarraituz.*
- *Esleitutako kontratuak Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.*
- *Hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea munta txikiko kontratuen adjudikaziorako araubide bereziari jarraituz egin diren adjudikazioak.*
- *Udal-eraikinen garbiketarako zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko urteko oroitidazkia egitea eta Udalari aurkeztea.*

## 2.4 ATARRABIAKO UDALAREN SOZIETATE PUBLIKOA

Kirol Martiket 2015 SL sozietate publikoak honako datu hauek agertzen ditu 2024ko ekitaldian:

Sozietate publikoa	Negozio-zifra garbia	Hornidurak eta beste ustiapen-gastu batzuk	Langileria-gastuak	Ekitaldiko emaitza	Langileak, 2024-12-31n
Kirol Martiket 2015 SL	1.502.827*	444.013	951.586	39.737	47

\*Ehuneko ehun udalaren enkarguari dagokio.

Kirol Martiket 2015 SL sozietateak udal kirol-instalazioak kudeatzen ditu Udalaren enkarguz.

### 2.4.1. Langileria

Sozietatearen langileria-gastuak 951.586 eurokoak izan ziren 2024an; alegia, 2023an baino ehuneko bat txikiagoak. Langileen ordainsariak ehuneko 2,5 egin zuten gora. Mantentze-lanen arduradunaren lanpostua eta koordinatzaile-lanpostua estali gabe egon ziren 2024ko ekitaldi osoan; horregatik murriztu dira sozietatearen langileria-gastuak 2023rekin alderatuta.

Hauekin lotuta daude gastuok:

Langileria-gastuak	Gastua (2024)	Gastua (2023)	Aldea (%a) 2024/2023
Lansariak eta soldatak	686.336	694.570	-1
Enpresaren kargura dagoen Gizarte Segurantzza	257.809	253.972	2
Beste gastu batzuk	7.441	10.295	-28
<b>Guztira</b>	<b>951.586</b>	<b>958.837</b>	<b>-1</b>

### Langileria-gastuaren egiaztapenak

Atarrabiako Kirol Martiket 2015 SL enpresaren hitzarmen kolektiboan dago araututa sozietateko langileen ordainsari-araubidea. Hitzarmen kolektiboa 2021eko martxoaren 9ko NAO n argitaratu zen, 2019tik 2022ra bitartekoa du denbora-esparrua, eta indarraldi mugagabea du, bi alderdiek beste hitzarmen bat sinatu artekoa.

Egiaztatu dugu langileei 2024an ordaindutako ordain-kontzeptu guztiak araututa daudela hitzarmen kolektiboan edo sozietateko Administrazio Kontseiluak onetsi zituela.

2024ko urriaren 31 langileri ordaindutako ordainsariak aztertu ditugu, 43.732 euroko zenbatekoa egiten dutenak, eta hitzarmenean eta Udalak 2023an onetsitako hitzarmen-hobekuntzetan ezarritakoaren arabera dira.

Oro har, kontratuan jasota dagoen eta monitoreei ordaindu zaien orduko prezioa handiagoa da hitzarmenean ezarritakoa baino; esan digutenez, hitzarmenean finkatutako prezioan langileak kontratatuzeko zailtasunagatik da hori.

Hitzarmen kolektiboan finkatutako loturagatik plusa ere kobratzen dute monitoreek; enpresan duten antzinatasunaren arabera portzentaje bat da, oinarritzko soldataren gainean kalkulatu dena. Baina kontratuan ezarritako orduko prezioak kontzeptu guztiak hartzen ditu barnean.

## Langile-hautaketa

Kirol-koordinatzailearen, mantentze-lanen arduradunaren eta sarbide-kontrolaren langilearen aldi baterako kontratazioa aurreko ekitaldian eraturako langile-zerrendak baliatuz egiten da.

Monitoreen kasuan, azaldu digute honako hauek direla haiek kontratatzeko irizpideak, lehentasun-hurrenkeran: lanaldi partzalean duden enpresako langileei eskaintzea, Nafarroako Enplegu Zerbitzuan argitaratzea, eta, premiaren eta lanaldiaren iraupenaren arabera, zuzenean kontratatzea.

## Aldi baterako langileen egonkortzea

Sozietateak ez zuen egin aldi baterako enplegua egonkortzeko prozesurik, aldi baterako kontratua zuten langileen ez baitzuten betetzen legedian ezarritako antzintasun-irizpidea.

2024ko urrian, ehuneko 24koa zen aldibaterakotasun-tasa estimatua.

### 2.4.2. Kontratazio administratiboa

Munta txikiko kontratu gisa izapidetutako zerbitzu eta hornidurak aztertu ditugu, eta mugaeguneraturako kontratuetan oinarritutako prestaziorik ba ote zegoen ere begiratu dugu.

Kirol Martiket 2015 SL sozietatea ez dago Nafarroako Kontratazioaren Atarian sozietate adjudikatzaile gisa alta eginda.

## Munta txikiko kontratazioa

Honako koadro honetan erakusten dira sozietatearen hornidura- eta zerbitzu-gastuak zenbateko-tarteka, bai eta aztertutako lagina ere:

Gastuak	Hornitzaile-kopurua	Gastua, gutzira	Aztertutako gastua	Hornitzaile-kopurua
15.000 euro gehi BEZa baino handiagoa	2	262.152	262.152	2
3.750 euro eta 15.000 euro artean (gehi BEZa)	12	125.067	125.067	12
3.750 euro gehi BEZa baino txikiagoa	88	86.207	4.003	1
<b>Gutzira</b>	<b>102</b>	<b>473.426</b>	<b>391.222</b>	<b>15</b>

Ikusi dugu munta txikiko kontratuen araubide bereziari jarraituz izapidetu direla, lau urteko epean, Kontratu Publikoei buruzko apirilaren 13ko 2/2018 Foru Legean ezarritako muga –hots, 15.000 euro, BEZa kanpo– baino gehiagoko balio zenbatetsia zeukaten hamar zerbitzu- eta hornidura-kontratu. Kontratu hauek dira:

Xedea	Gastua, gutzira (2024)	Gastua, gutzira (2021-2024)
Gasa eta elektrizitatea	174.025	672.904
Ur-tratamendua	20.090	73.955
Kontrol sanitarioa	15.076	40.925
Lorezaintza-lanak	13.452	47.086
Aire-giroztearen eta galdararen mantentze-lanak	12.980	35.040
Garbigaiak	11.736	46.081
Futbol-zelaiako gasolioa	9.571	27.857
Igerilekuko ponpak eta kloro-andelak	9.421	32.568
Argiteria eta elektrizitateko mantentze-lanak	7.597	24.693
Igerilekurako garbigai espezifikokoak	5.157	36.884
<b>Gutzira</b>	<b>279.105</b>	<b>1.037.993</b>

Kirol Martiket 2015 SL sozietateak ez ditu hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzen munta txikiko kontratuen esleipenerako araubide bereziaren bitartez egindako esleipenak.

### **Kontratu mugaeguneratuak**

Kirol Martiket 2015 SL sozietateak ez du izapidetu lizitazio-prozedurarik, eta, beraz, ez du mugaeguneratutako kontraturik.

#### **2.4.3 Udalaren enkarguak**

2023ko azaroaren 28an, Udalaren osoko bilkurak entitate instrumental deklaratu zuen Kirol Martiket 2015 SL sozietatea, zeinak udalaren kirol-instalazioak kudeatzen baitzituen 2015az geroztik; eta Udalak, beraz, enkargua eguneratu zuen. 2025eko martxoan, Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu ziren sozietatea entitate instrumental izendatzeko aitorpena eta enkargua bera.

2025eko otsailean, sozietatearen administrazio-kontseiluak onartu egin zuen Udalaren osoko bilkurak 2023ko azaroan onetsitako enkargua.

Sozietatearen aurrekontuan aurreikusitako gastua ordaintzen dio Udalak sozietateari. 2024an, sozietateak 100.000 euro jaso zituen Udalaren eskutik enkargua finantzatzeko, eta 39.737 euroko mozkina izan zuen.

Ez zen aztertu enkarguko gastuen justifikazioa, eta Udalaren ekarpena ez zen doitu enkarguaren gastu errealen arabera.

*Egin dugun lanaren konklusioak kontuan hartuta, honako hau gomendatzen dugu:*

- *Zerrendak eratzea aldi baterako langile guztien kontrataziorako.*
- *Hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea munta txikiko kontratuen adjudikaziorako araubide bereziari jarraituz egin diren adjudikazioak.*

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI EGINDAKO ALEGAZIOAK****KONTUEN GANBERARI**

Aitor Altuna Berazadi jauna, Andacelay SL merkataritza-sozietate publikoaren gerentea, Kontuen Ganberaren aurrean agertzen da, eta, zuzenbidean egokien den moduan, honako hau DIO:

Antsoaingo, Burlatako, Eguesibarko eta Atarrabiako udalen sozietate publikoen 2023ko langileriari, kontratazio publikoari eta enkarguei buruzko behin-behineko fiskalizazio-txostena onesten duen Kontuen Ganberaren lehendakariaren ebazpenari dagokionez 2025eko ekainaren 19an sozietate honi emandako iritzi-emate ahalari heldurik, honako alegazio hauek aurkezten direla horretarako emandako epearen barruan:

*1.- Gomendatzen dugu ordainsariak ordaintzeko baimena kentzea sozietate publikoan lan aktiboan ez dauden langileei.*

Jakinarazten dugu Kontuen Ganberaren gomendioari jarraituz 2025eko maiatzaren 30ean ordainsariak ordaintzeko baimena kendu zitzaiela sozietate publikoan lan aktiboan ez dauden langileei.

Horri dagokionez, hauek atxikitzen dira:

- 1. dok.- Andacelay SL sozietatearen administrazio-kontseiluak 2025eko maiatzaren 30ean egindako bilkuraren aktaren ziurtagiria; bilkura horretan erabaki zen ahala ezeztatuko zitzaiola lan aktiboan ez zegoen pertsonari.

- 2. dok.- Akta horren berri izatearen ziurtagiria.

*2.- Gomendatzen dugu aurreikusitako gastuagatiko 192.883 euroko hornidura bat zuzkitzea, sozietateko langileek jarritako salaketaren estimazioaren arabera.*

Jakinarazten dugu Kontuen Ganberaren gomendioari jarraituz aurrekontu-aldaketa onetsi zela 2025eko ekainaren 9an, 200.000 €ko zenbatekoz, 218/25 epaiak eragindako gastuei aurre egiteko.

Horri dagokionez, hauek atxikitzen dira:

- 3. dok.- Andacelay SL sozietatearen administrazio-kontseiluak 2025eko maiatzaren 30ean egindako bilkuraren aktako erabakiaren ziurtagiria, non jasotzen baita men egiten zaiola 218/25 epaiari, ez dela errekursorik aurkeztuko, eta Eguesibarko Udalarari helaraziko zaizkiola 218/25 epaia bera, haren interpretazio-agiria, abokatu-zuzendaritzak emandakoa, epaia betetzeko behar harko den zenbatekoaren estimazioa eta, azkenik, hartutako erabakia.

- 4. dok.- Ogasun, kontu eta langileriako informazio-batzordearen 2025-06-09 Irizpenaren ziurtagiria. Irizpenean erabakitzen da onetsi egiten dela 2025erako indarreko udal-aurrekontuaren 5. aurrekontu-aldaketa, 200.000 euroko zenbatekoz, diruzaintzako-gerakinaren kontura finantzatuko den kreditu-gehigarri baten bidez, 2025ko maiatzaren 23ko 218/25 Epaitik sortutako gastuei aurre egiteko. Hain zuzen ere, epai horretan onetsi egiten da gatazka kolektiboagatik jarritako salaketa, eta ezartzen da derrigorrezkoa dela hitzarmen kolektiboaren batzorde paritarioak finkatutako irizpideen arabera aplikatzea Familiei Arreta egiteko Zentroko lanpostuen sailkapena.

*3.- Gomendatzen dugu sozietatearen hobekuntza-ituna argitaratzea, maiatzaren 17ko 5/2018 Foru Legeari, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoari jarraituz.*

Jakinarazten dugu Hobekuntza Ituna argitaratu zela 2025eko ekainaren 13an, Kontuen Ganberaren gomendioari jarraituz. 5. dok. gisa atxikitzen dugu egindako argitalpenaren kopia.

*4.- Gomendatzen dugu esleitutako kontratuak Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratzea.*

Jakinarazten dugu esleitutako kontratuak Nafarroako Kontratazio Atarian argitaratu zirela 2025eko ekainaren 11n eta 12an, Kontuen Ganberaren gomendioari jarraituz. Horri dagokionez, 6., 7., 8. eta 9. dok. gisa atxikitzen ditugu esleipenen argitalpenen kopiak.

*5.- Gomendatzen dugu hiru hilean behin Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzea munta txikiko kontratuen adjudikaziorako araubide bereziari jarraituz egin diren adjudikazioak.*

Jakinarazten dugu 2025eko ekainaren 12an Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratu zirela hiru hilean (fakturen hiru hilean behingo zerrendak) behin munta txikiko kontratuen adjudikaziorako araubide bereziari jarraituz egindako adjudikazioak, Kontuen Ganberaren gomendioari jarraituz. Horri dagokionez, 10., 11., 12., 13., 14. eta 15. dok. gisa atxikitzen ditugu honako hauek: 2024ko 4 hiruhilekoetako eta 2025eko lehenengo hiruhilekoko fakturen hiru hilean behingo zerrenden kopiak, bai eta Nafarroako Kontratazioaren Atarian egindako horien argitalpena ere.

*6.- Gomendatzen dugu udal-eraikinen garbiketarako zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko urteko oroitidazkia egitea eta Udalari aurkeztea.*

Jakinarazten dugu udal-eraikinen garbiketa-zerbitzuaren funtzionamenduari buruzko urteko oroitidazkia aurkeztu zitzaiola Eguesibarko Udalari 2025eko ekainaren 17an, Kontuen Ganberaren gomendioari jarraituz. Horri dagokionez, 16. eta 17. dok. gisa atxikitzen ditugu oroitidazkia bera eta hura Udalari aurkeztu izanaren egiaztagiria.

**BEHIN-BEHINEKO TXOSTENARI AURKEZTUTAKO ALEGAZIOEI KONTUEN GANBERAK EMAN-  
DAKO ERANTZUNA**

Eskerrak ematen dizkiogu Andacelay SL sozietatearen gerenteari aurkeztutako alegazioengatik. Alegazio horiek behin-behineko txostenari eransten zaizkio, eta, beraz, behin betikotzat jotzen da txostena, haiei buruz irizten baita ezen egindako fiskalizazioaren azalpen bat direla eta ez dutela haren edukia aldatzen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador